

Kanal digitaletan % **10 hazi dira sarrerak** urteko lehen sei hilabeteetan

Kutxabanken bezero digitalak %61era arte hazi dira

- **Urruneko zerbitzuetatik egin da produktuen eta zerbitzuen salmenten % 42, hau da, sukurtsalak ez diren beste bideetatik**
- **Miloi 1 bezerok baino gehiagok urruneko kudeaketako zerbitzu eskusibo eta pertsonalizatua dute**

2022ko abuztuaren 4an. Kutxabanken banka digitalak eskaintzen dituen aukera anitzei esker, zerbitzu hau erabiltzen duten bezeroen kopuruak gorakada handia izan du 2022ko lehen seihilekoan. Hain zuzen ere, gaur egun, Kutxabanken bezeroen % **60,9 erabiltzaile digitalak** dira.

Igoera horren haritik, Kutxabank Taldeko kanal digitalek **140 milioi** bisita zenbatu dituzte, hau da, % **10eko hazkunde**a izan dute. Ohi bezala, **Banku mugikorrek** urrutiko zerbitzu ezberdinen artean kanal erabiliena izaten jarraitzen du, sarrera guztien % **83** hartzen baitu, 2021eko ekainean baino hiru puntu gehiago.

Azpimarratzekoa da, halaber, epe horretan bertan Euskal Autonomia Erkidegoko bezeroek egin dituen **transakzioen % 93** bide digitalen bidez bete dituztela, hau da, kutxazain automatikoen, online Bankaren eta mugikorreko Bankaren bidez, edo telefonoz.

Produktuak eta zerbitzuak kontratatzerakoan, Kutxabanken bezeroek geroz eta nahiago dute mugikorra eta online Banka erabiltzea. Kanal digitalen bidez **egindako salmentak** salmenta guztien % **42** dira.

Kanal digitalak erabili dira, esate baterako, kontuen % 37 kontratatzerakoan, eta pentsio planen % 65 kontratatu edo kudeatzeko, inbertsio funtsen eta delegatutako zorroen % 35 kontratatu edo kudeatzeko, eta kontsumorako maileguren % 47 sinatzeko.

Miloi 1 bezero baino gehiagok arreta eskusibo eta pertsonalizatua dute eta 'muroa' deritzona erabiltzeko aukera dute. Urruneko kudeaketako zerbitzu honek aplikaziotik zuzenean kudeatzailearekin komunikatzeko aukera ematen die, bulegoetara joan-etorri beharrik gabe. Urteko lehen seihilekoan, **70.000 bezero** baino gehiago batu ziren tresna honetan, guztira **1,5 milioi mezu** eta **150.000 fitxategi** baino gehiago trukatu.

Kutzazainen sarea oinarrizko beste osagaietako bat da Kutxabanken estrategia 'omnikanala' babesteko, teknologia berrietan oinarritutako banaketa ereduaren baitan.

Gaur egun, Kutxabank Taldeko **kutzazainen % 70 baino gehiagok** dagoeneko **'kontakturik gabeko'** operazioak ahalbidetzen ditu. Teknologia honen bitartez, transferentziak egin daitezke edo zordunketak helbideratu eta ordaindu, ohikoak diren beste eragitez gain, hau da, eskudirua lortu, saldoa eta mugimenduak kontsultatu, edo dirua sartu.

Kutxabank Taldeak martxoan jarri zuen abian **adineko bezeroentzako lehentasunezko telefono zerbitzua**. Zerbitzu hau lanean izan den lehen hiru hilabeteetan, **11.500 dei** baino gehiago erantzun dira.